

# JAINKO BILA

Joxttin

La montaña puede dar lugar a sensaciones muy intensas y a vivencias difíciles de describir: las visiones de la noche antes de la salida, el choque con los rayos del sol, las dificultades que se desploman a la vista de la cumbre...

Afaldu ahala oheratu naiz, ez lehenago biharamunean beharko ditudan: botak, motxilak, alkandorak... eta nik dakit beste zenbat traste; prestatu gabe. Neronekin dut ordubete edo denbora luzeagoan adiskide izango dudan irratia. Ipinu dut aurkitu dudana musika apalenean, behin bertan murgildurik, igaro ditut lur, haize eta itsasoak. Azkenean, nolabait, erdi lozorroan itzaltzeko zoria izan dut.

Asmo sendoren bat hartu ohi dudana bakoitzean bezala, oinkada mutuenak ere esnarazi ditu nire belarri erneak.

Bat, bi, hiru bider begiztatu behar izan ditut erloju-orratzak eta azkenean; laurak direla diote. Ez dakit nondik, noizpait erretiratu den gorputz nekatuari atsedena eman nahian ezin asmatu dabilen anaia. Jirabira batzuk eman, astindutako manta eta mairidireek txukun-txukun ipini eta beraietaz estalia geratu naiz. Oraindik, baditut beste lau ordu.

Eguna hasteko, tarteka-marteka, itzali eta pistu dabilzkit begi erneek, azken minutuak aprobetxatu nahiz.

Lehenengo argi zipriztinak ate zirrikitutik datozkit. Ez dut minutu bat gehiago alferrik galdu behar.

Motxilak, botak... asmoz eta ustez behar dudana guztia neronekin daramakidalakoan, laranja zumo eta hondoan gelditu zaizkan patsak dastatuz, irten naiz etxetik halako batean.

Gorantz zuzentzen diren lehen kilometroetan —autoek argi motzean egin ohi duten bezanbeste argiz— lainoek bahitua naramate pausoz-pauso inongo txintik gabe.

Behin aldapa igorik, atzerantz jausi ditut begiek prismatikoak balire.

Maindire zuriz estalitako ezereza azpiz, mendi gailurren hesia erdiz, mantxarrik gabeko zero garbia gainez.

Jarrai dut aurrera neurea dudana pausotan, noizbehinka, jadanik atera den eguzki geziez erdi itxuturik.

Lau ordu daramazkit ibiliaren ibiliz. Eguzkia topatzean, ñabarduraz josia ikusten dut guztia lauso. Atsegin egiten zait itzaletik argira ateratzea, eguzki errainuen laztasuna

dastatzeko.

Ez zaizkit: harkaitzak oztopo, bizkarreko zama astuna, kilometroak neketsu..., gailurra zain baitut begien bistan.

Agurtzen ditut, agurtzen nauten bezala, nire aldamenen pasatzen den oro; maindire azpian hau holako eta bestea holako dena.

Azken aldapa bizian naiz. Arnasa, bihotz taupadak, hatsa... sarriago berotuz. Noizbehinka itolarriak jasanaz. Indarrak zangoetan itsatsiz, buruko ahalmenak gailurrean josiz; banoa, barruan izkutuko indarrek, gidatzen nauen Jainko bila.

Hogei ta bost, hogei, hamabost... ez zaizkit harkaitzak oztopo, bizkarreko zama astuna, kilometroak neketsu..., gailurra zain baitut begien bistan.

Begiek jaso ahala; ez dut inoren ezpainetan gorrotorik somatzen, irrifarra, baizik. Ez dut eztarria lehor, zatatoa luzatzen baitirade.

Eta hurrengo batean, beste Jainko baten bila irtengo naiz eta hurrengoan beste batena eta hurrengoan...

## Pireneko mendiak

Por cortesía de un amigo benapartarra reproducimos la traducción al euskara de la conocida canción «Montagnes Pyrénées». La versión fue escrita en México a finales del siglo pasado, concretamente en la ciudad de Fresnillo, estado de Zacatecas, el año 1894, por Caetano Mandabarratz.

1

Pirene-ko mendiak  
Ene amodioak  
Etchola dohakabiak  
Bethi maitatuak  
Deus hain eder nola herria  
Deus hain eder nola maitia  
Menditarrak, menditarrak  
Kanta gostuz, kanta gostuz  
Ene herritik, ene herritik  
Loria, dohain ona.

2

Utzhik hor hire mendiak  
Arrotz batek niri.  
Segi ni landako baitiat.  
Nahi duk artzaingoa utzi.  
Ez, ez erhokeria hori  
Bai naiz urus bizi huntaz ni  
Badut gerrikoa, badut gerrikoa  
Bai poneta, bai poneta  
Kantu airosak, kantu airosak  
Etchola eta «muza».

3

Arte mendin hantche  
Oro ichil daude  
Mendia da gordeche  
Hartarrik urrun gaude  
Gerrenda idor baten sahesian  
Aditzen dut haizea furian  
Mendi hartan, mendi hartan  
Bai frangotan, bai frangotan  
Aintzinan dut, aintzinan dut  
Bas-ahuntza lasterka.

4

Kasko churi enea  
Eraunsi lekhua  
Mendia da hezia  
Gure bichtan agertua  
Deusez aitzen gau ilhunean  
Ura orruaz! Itzalean  
Menditarrak, menditarrak  
Kanta apha, kanta apha  
Terecha lo, Terecha lo!  
Ez hie tzaraeragi.

Errepika

Geldi hor, geldi hor, geldi hor  
Menditarrak, menditarrak  
Geldi hor, geldi hor, geldi hor  
menditarrak hor  
Menditarrak, menditarrak dira.